

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2016ko neguan izan da sute eta erretako azalera gutxien, Nafarroan, azken hamarkadan

Datozen asteetan, udaberri bete-betean gaudenean, ikusiko da abenduko suteek kantauriar erlaitzean kaltetutako basoek erreakzionatzeko nolako gaitasuna duten

Ostirala, 2016.eko maiatzak 6

2016ko neguan izan da sute eta erretako azalera gutxien, Nafarroan, azken hamarkadan, Foru Erkidegoko Gobernuak urtarrila eta apirila artean baso-suteen inguruan egindako kanpainaren balantzearen arabera.

Zehazki, neguan zehar, 208 landaredi-sute aitortu dira, iaz baino % 36 gutxiago (324 sute izan ziren). Erretako hektareei dagokienez, urtarrila eta apirila artean 148,82 erre dira, 2015eko denboraldi berean (361,09) baino %59 gutxiago.

Horixe eman dute jakitera gaur goizean Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilaria den M^a Jose Beaumontek eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuko kontseilaria den Isabel Elizaldek Igantzin eskaini duten prentsaurrekoan. Haiekin batera izan dira Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia, Eva Garcia; Igantziko alkatea, Lourdes Ibarluzea; Arantzako alkatea, Juan Miguel Almandoz; Goizuetako alkatea, Unai Loiarte; Lesakako alkatea, Jose Luis Echegaray; eta Baztan eta Donostiako udal-ordezkariek.

Agerraldia amaitu ondoren, bi kontseilariak eta udal-ordezkariek pasa den abenduan Frain mendian erretako lursailak bisitatzera joan dira, Igantzi eta Lesaka udalerrietan, suteak kaltetutako basoak udaberria iristean nola erreakzionatzen ari diren *in situ* ikustearren. Sute hori Nafarroan iaz erregistraturiko handiena izan zen; hots, 263 hektarea erre ziren, eta horietatik 149 zuhaitziak izan ziren, gehienak (102 hektarea) baso-berritzeak, zura ateratzeko landatutakoak bereziki.

Nahiz eta Mendien Zerbitzuak suteak eragindako baso-kalteak onartu eta landare batzuk hondatutzat jo, udaberria iritsi arte ezin da jakin zuhaitzietik nola erreakzionatuko duten. Beraz, hori ikusita proposatuko dira baso-berritzeko beharrezkoak diren neurriak, mendiaren zati bat modu naturalean birsortuko baita. Suteak kaltetutako zuhaitzietik %32 bertako haritza izan zen, %21 norteko haritza, %14 Douglas izeia eta %14 pinu erradiata. Gainerako hektareak honako zuhaitzietik osatu dituzte: %6 pagoa, %6 larizio pinua, %3 gaztainondoa, %2 akazia eta %2 laritza.

Lau sute handi abenduan

Sute hori Nafarroan 2015eko abenduaren 17tik 26ra bitartean

gertatutako lau baso-sute handienetariko bat izan zen. Sute horietan guztira 525 hektarea erre ziren; urtarrietik azarora bitarte, aldiz, 635 bat hektarea erre ziren. Lehena Goizuetan izan zen, Mandoegi bezala ezagutzen den inguruan; 66 hektarea erre zituen, gehienak hariztiak. Bigarrena, Igantzi eta Lesaka artean gertatu zen, Frain mendian, eta 263 hektarea erre ziren, batez ere baso-berritzeak. Hirugarrena, berriz, Arantzan eta Goizuetan izan zen, Izu eta Malkorra alderdietan; 153 hektarea erre ziren, batez ere haritzak. Azkenik, beste bat Baztanen piztu zen, Zarbostan, eta 43 hektarea erre ziren, bereziki sasiak eta berroihantzeak.

Eguraldiari dagokionez, abendua ohiz kanpokoa izan zen; hots, temperatura altuak (batez bestekoa baino 4^o gehiago), hezetasun baxuak, hego-haizeak eta denboraldi luzeko prezipitazio eskasa. Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak Gorramendin eta Santestebanen dituen geltoki meteorologikoetan, metro karratuko 8,3 eta 4,3 litro erregistratu ziren, hurrenez hurren, hilabete horretan, eta abenduko batez bestekoa 189,7koa izan ohi da lehen geltokian eta 155,7koa bigarrean.

Gogoratuko dugunez, ezohiko baldintza meteorologiko horiek medio, larrialdi-egoera sortu zen kantauriar erlaitz osoan, eta baso-sute ugari batera gertatu ziren Komunitate ezberdinetan; era horretan, autonomietako baliabide ezberdinen itzaltze-gaitasuna gainditu zuten. Nafarroari dagokionean, sute gutxi erregistratu ziren, garrantzitsuak izateaz gain, batera gertatu baziren ere.

Larreen suteak neguan

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Departamentuak eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak basoen suteak prebenitzeko eta itzaltzeko kanpaina garatu zuten neguan zehar. Horietan parte hartzen du, baita ere, Ministerioak, baso-suteak osorik prebenitzeko bi talderekin (EPRIF): bata Auritz eskualdeko parkean eta bestea Oronozkoan. Gainera, Nafarroako Gobernuak beste 30 su-hiltzaile jarri ditu parke horietan hilabete horietan zehar.

Kanpaina horren esparruan, iparraldeko abeltzainekin esku hartzen da basobera eta larreen erreketa kontrolatuak egiteko; horiek arrisku handikoak izaten dira. Dena den, aurten, baldintza meteorologikoak direla-eta, soilik 15 erreketa kontrolatu egin ahal izan dira, guztira 137,5 baso-hektarea, berrogeita hamar bat jarduera planifikatzeko bisitak egin diren arren.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak baso-hondakinak erretzeko eta larreak hobetzeko 264 erreketa baimendu ditu; hau da, guztira 1.243 hektarea, baina askoz ere gutxiago egin dira neguan izandako aurkako baldintza meteorologikoak medio, batez bestekoan baino prezipitazio gehiagorekin.

Udara begira aurreikusitako kanpaina

Beaumont eta Elizalde kontseilariak, halaber, haien departamentuek, udan, ekainaren 10etik irailaren 28ra bitartean, baso-suteak prebenitzeko eta itzaltzeko egingo duten kanpainaren ezaugarri nagusiak aurkeztu dituzte gaur goizean.

Aurreko urteetan bezala, pixkanaka-pixkanaka beste 150 laguntzaile sartuko dituzte su-hiltzaileen parkeetan, hirugarren helikoptero bat eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak utzitako ur-hegazkina.

Berriei dagokienean, bi ponpa-auto erosi dira Su-hiltzaileen Zerbitzuko ibilgailu-kopurua gehitze aldera, eta helikopteroz garraiatzeko brigada berria antolatu da; beraz, Nafarroako Gobernuak bi helikoptero langile finkoak izango dituzte beharrezkoa denean tandem eran jardun ahal izateko.

Lan koordinatua

Nafarroako Gobernuak Su-hiltzaileen eta Mendien Zerbitzuak duela 14 urte hasi ziren batera lan egiten baso-suteak prebenitzeko eta itzaltzeko.

Prebentzio-lanen artean, aipatzekoa da urmael batzuk eraiki dituztela ingurune naturaletan, eta animalien askak ez ezik, su-hiltzaileen ponpa-autoak eta suteen aurkako helikopteroak ere hornitzen dituzte. Gainera, abeltzaintza estentsiboa sustatzen da, landaredi-kopurua kontrolatzeko eta sasiak

hazkundera moteltzeko funtsezko elementu gisa. Era berean, salbuespenezko baimenak ematen dira sua neguan zehar larreetan erabiltzeko.

Bestalde, baso-laguntzen kanpainan, %60ra bitarteko diru-laguntzak sartzen dira, baso-sastrakak garbitzeko, basoa modu naturalean errazago birsortze aldera nahiz abeltzaintzarako erabiltzearen, horretarako plana izanez gero. Era berean, kantauriar eskualdean laguntza-zenbatekoak gehitu dira (% 75era bitarte), landaredia izan eta arrazoi ezberdinak medio baso berritzen ari ez diren lursailetan baso-berritzeak sustatzeko helburuarekin.

Horrez gain, prebentziozko erreketa egiten dira suteak hasteko edo zabaltzeko arrisku handia dagoen zonetan (aurretik suteak izateagatik, landaredi-motarengatik, lurzoruaren erabilerarengatik, herrietatik, industrietatik edo baserrietatik gertu egoteagatik, e.a.). Modu berean, zaintzeko lanak, lursaila ezagutzeko bisitak eta baso-pistak egokitzeko lanak egiten dira, su-hiltzaileen ibilgailuak errazago igarotzearen, beharrezkoa gertatuz gero.

Bestalde, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak egunero hornitzen ditu iragarpen meteorologikoa eta suteen arrisku-mapa, behin baso-sutea aitortuta suak izan dezakeen portaera simulatzen duen programa informatikoa su-hiltzaileei ematearekin batera.

Itzaltzeko lanetan, su-hiltzaileek Mendien Zerbitzuko langileen aholkularitza ere jasotzen dute, izan Basozaingoa edo Baso Kudeaketarena, eta, hala behar izanez gero, suaren aurka egiteko *bulldozer* makinak izan ditzakete.